Gipuzkoako Foru Aldundia
Gobernantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Gobernanza

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gobernantza Departamentua
Departamento de Gobernanza
IRTEERA - SALIDA
2021 MAI. MAY. 12
Zk. / N.º 2283

**02/2021 EBAZPENA, MAIATZAREN 12KOA, GARDENTASUNAREN ARLOKO ERREKLAMAZIOEN BATZORDEARENA**

**Espedientea:** 2021/002

***Gaia:*** [redacted]k aurkeztutako erreklamazioa, epaimahai kalifikatzailearen akten kopiak lortzeko egindako eskabidea behar bezala ez dela onartu uste duelako.

## AURREKARIAK

1.- [redacted]k idazki bat aurkeztu zuen Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordean, 2021eko apirilaren 20an, honako eduki honekin:

**RESOLUCIÓN 02/2021, DE 12 DE MAYO, DE LA COMISIÓN DE RECLAMACIONES EN MATERIA DE TRANSPARENCIA**

**Expediente:** 2021/002

***Asunto:*** *Reclamación presentada por* [redacted] *por considerar no atendida debidamente su solicitud de obtención de copias de las actas de Tribunal calificador.*

## ANTECEDENTES

1.- [redacted] presentó ante la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia, un escrito, con fecha 20 de abril de 2021, con el siguiente contenido:

*"Que habiendo participado en la convocatoria de referencia y teniendo la condición de interesado en la misma, con fecha 2 de noviembre de 2020 se presentó al registro de la Dirección de Función Pública del Departamento de Gobernanza de la Diputación Foral de Gipuzkoa (Nro. de registro electrónico:* [redacted] *. Nro. departamental:* [redacted]*), la remisión de copia de todas las actas del Tribunal Calificador de la convocatoria OP2018/02 del consurso-oposicion libre para el acceso a 35 plazas de Técnico de Administración General.*

*Que la citada solitud todavía no ha sido atendida,*

*De conformidad con el artículo 24 de la Norma Foral 4/2019, de 11 de marzo, de Buen Gobierno en el marco de la gobernanza pública foral, propugna el principio de máxima accesibilidad, que en este caso no ha sido respetado.*

***SOLICITA***

*De conformidad con el artículo 52 de la Norma Foral 4/2019, de 11 de marzo, de Buen Gobierno en el marco de la gobernanza pública foral, la intervención de la Comisión de Reclamaciones en Transparencia de la Diputación Foral de Gipuzkoa, para que inste al responsable de la materia a la remisión de copia de todas las actas del Tribunal Calificador de la convocatoria OP2018/02 del consurso-oposicion libre para el acceso a 35 plazas de Técnico de Administración General."*

5.- 2021eko apirilaren 21ean, Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzorde honek Araubide Juridikoaren eta Pertsonen Kudeaketaren Zuzendaritza Nagusiari igorri zion erreklamazioa, berau ebazteari dagokionez garrantzitsua izan daitekeen informazio guztia eman zezan.

5.- Con fecha 21 de abril de 2021, esta Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia, remitió la reclamación a la Dirección General de Régimen Jurídico y Gestión de Personas, al objeto de que pudiera informar y aportar cuanta información fuera relevante de cara a la resolución de la reclamación.

6.- Araubide Juridikoaren eta Pertsonen Kudeaketaren Zuzendaritza Nagusiak, 2021eko maiatzaren 4ko idazkiaren bidez, erreferentziako gaiari buruzko txostena eman zuen, eta erreklamazioa ez onartzea proposatu zuen, *gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen* lehen xedapen gehigarria aplikatuz.

6.- La Dirección General de Régimen Jurídico y Gestión de Personas presentó mediante escrito de fecha 4 de mayo de 2021, informe sobre el asunto de referencia, proponiendo la inadmisión de la reclamación en aplicación de la disposición adicional primera de la *Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.*

## OINARRI JURIDIKOAK

## FUNDAMENTOS JURIDICOS

1.- 4/2019 Foru Arauak, martxoaren 11koak, foru gobernantza publikoaren esparruko Gobernu Onari buruzkoak, 50. artikuluaren 7. apartatuan xedatutakoaren arabera, Organo honek eskumena du informazioa eskuratzeko prozedura baten esparruan aurkezten diren erreklamazioak ebazteko, baldin eta administrazioarekiko auzi-errekurtso bat jarri aurretik aurkezten badira.

1.- De conformidad con lo dispuesto en el apartado 7 del artículo 50 de la Norma Foral 4/2019, de 11 de marzo, de Buen Gobierno en el marco de la gobernanza publica foral, este Órgano es competente para resolver las reclamaciones que, con carácter previo a un eventual y potestativo Recurso Contencioso Administrativo, se presenten en el marco de un procedimiento de acceso a la información.

2.- Martxoaren 11ko 4/2019 Foru Arauaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, *informazio publikoa da foru sektore publikoko subjektuetarako edozeinen esku*

2.- De acuerdo con las definiciones contenidas en el artículo 7 de la Norma Foral 4/2019, de 11 de marzo, se entiende por información pública los *datos o*

*dauden datuak edo dokumentuak, formatu edo euskarria dena dela, subjektu horiek beren jardueretan landu edo eskuratuak.*

Beraz, Foru Arauak informazioa eskuratzeko eskaera baten xedea definitzen du, lehendik dagoen informazioari dagokionez, eskaera jasotzen duen subjektuaren esku dagoelako, dela berak prestatu duelako, dela esleituta dituen funtzioak eta eskumenak baliatuz lortu duelako.

3.- Bestalde, Foru Arauak xedatutakoaren arabera, *informazioa eskuratzea da foru sektore publikoko erakunde eta entitateek duten eta beren eginkizunak gauzatzen dituzten bitartean prestatutako edo eskuratutako informazio publikora iristeko pertsona guztiek duten eskubidea, inolako motibaziorik zein inolako interes espezifiko edo bestelako eskubiderik alegatu beharrik gabe balia daitekeena.*

4.- Espainiako Konstituzioaren 105 b) artikuluak berariaz aitortzen du herritarrek eskubidea dutela administrazio publikoen esku dagoen informazioa eskuratzeko.

5.- Konstituzio aurreikuspen hori *Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean* garatuta dago. Lege hori, gure sistema juridikoan, pertsonek jarduera publikoari buruzko informazioa eskuratzeko duten eskubidea arautzen eta bermatzen duen

*documentos, cualquiera que sea su formato o soporte, que obren en poder de cualquiera de los sujetos del sector público foral y que hayan sido elaborados o adquiridos en el ejercicio de sus actividades.*

Por lo tanto, la Norma Foral define el objeto de una solicitud de acceso a la información, en relación a información que ya existe, por cuanto está en posesión del sujeto que recibe la solicitud, bien porque él mismo la ha elaborado o bien porque la ha obtenido en ejercicio de las funciones y competencias que tiene encomendadas.

3.- Por otra parte, se entiende por acceso a la información, *el derecho de todas las personas de acceder a la información pública de que dispongan las instituciones y entidades que conforman el sector público foral y que haya sido elaborada o adquirida en el ejercicio de sus funciones, sin necesidad de motivación alguna, ni alegar interés especial ni ningún otro derecho.*

4.- El artículo 105 b) de la Constitución Española reconoce de forma expresa el derecho de los ciudadanos a acceder a la información que estuviera en poder de las Administraciones Públicas.

5.- Esta previsión constitucional se encuentra desarrollada en la *Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y bien gobierno*, que se configura en nuestro sistema jurídico como la norma que con carácter general y básico regula y garantiza el derecho de acceso de las personas a la información

arau orokor eta oinarrizkoa da, Espainiako Konstituzioaren 105.b) artikuluan ezarritakoari jarraituz.

6.- 19/2013 Legea formalki oinarrizkoa dela berariaz jasota dago azken xedapenetako zortzigarrenean, Estatuak legea emateko oinarri izan ziren eskumen-tituluak aipatzen baititu. Bestalde, oinarrizko izaera materialki ondorioztatzen da haren edukitik, Estatuko lurralde osoan gutxieneko arau komun bat ezartzen baitu, gaur egun Espainiako Konstituzioaren 105.b) artikulua zuzenean garatzen duen araua delako.

19/2013 Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren 1. apartatuan ezartzen denez, "Abian den administrazio-prozedura batean interesdun direnek prozedura hori osatzen duten agiriak eskuratzeari aplikatzekoa zaion araudia izango da, hain zuzen, dagokion administrazio-prozedura arautuko duen araudia".

8.- Lehenengo xedapen gehigarri honen 1. paragrafoaren aplikazioari dagokionez, zehaztapen batzuk egin behar dira, ez onartzeko arrazoi gisa argudiatu ahal izateko:

- Lehenik, kasuari aplika dakiokeen administrazio-prozedura espezifiko bat egon behar da; bigarrenik, erreklamatzailea interesdun bat izan behar da, eta hirugarrenik, prozedurak abian egon behar du.

relativa a la actividad pública en los términos contenidos en el art.105.b) CE.

6.- El carácter formalmente básico de la Ley 19/2013 se constata expresamente en su disposición final 8ª que recoge los títulos competenciales al amparo de los cuales el Estado dictó la misma. Por su parte, el carácter materialmente básico se deduce de su contenido al establecer un mínimo común normativo en todo el territorio del Estado que deriva de ser la norma que en la actualidad opera el desarrollo directo del art.105.b) CE.

7.- La Ley 19/2013 establece, en el apartado 1 de su Disposición Adicional Primera, que "La normativa reguladora del correspondiente procedimiento administrativo será la aplicable al acceso por parte de quienes tengan la condición de interesados en un procedimiento administrativo en curso a los documentos que se integren en el mismo".

8.- Respecto a la aplicación de esta Disposición Adicional Primera, apartado 1, deben hacerse ciertas precisiones, para que pueda ser invocada como motivo de inadmisión:

- Primero, debe existir un específico procedimiento administrativo aplicable al caso, segundo, la persona reclamante debe ser un interesado en el mismo y tercero, el procedimiento debe estar en curso.

9.- Kasu honetan, berariazko administrazio prozedura bat dago, 2019ko urtarrilaren 8ko Foru Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bidez onartu zena. Bertan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko hogeita hamabost teknikari lanpostu lehiaketa-oposizio bidez betetzeko hautaketa prozesurako deialdia egiten zen.

Erreklamatzaileak eskatutako aktak, hain zuzen ere, prozedura horren zati dira.

10.- Erreklamaziogilea, aipatutako deialdian parte hartzen duen izangaia den aldetik, hautaketa prozesuan interesatua da.

Erreklamaziogileak berak, Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzorde honetan aurkeztutako erreklamazioan adierazitakoaren arabera, bere buruari aitortzen dio izaera hori.

11.- informazioa eskuratzeko eskabidea egin zen unean administrazio prozedura benetan bizirik zegoen ala ez galderari dagokionez, esan behar da baietz, gaur egun oraindik ez baitira hautagaiak karrerako funtzionario izendatu eta hauek karrerako funtzionario gisa jabetu.

Bai informazioa eskatu zen unean, bai erreklamazioa aurkeztu zen unean, erreklamatzailea interesatua den hautaketa prozesua oraindik amaitu gabe zegoen.

9.- En el presente supuesto, existe un procedimiento administrativo específico, que fue aprobado mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno Foral, de 8 de enero de 2019, donde se convocaba el proceso selectivo para el acceso, mediante concurso-oposición, a treinta y cinco plazas de Técnico/a de Administración General de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Las actas solicitadas por el reclamante forman parte precisamente del referido procedimiento.

10.- La persona reclamante, en tanto aspirante que participa en la convocatoria referida, resulta interesado del proceso selectivo.

El propio reclamante, según lo manifestado en la reclamación presentada ante este Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia, reconoce en su persona esa condición.

11.- En cuanto a si el procedimiento administrativo estaba efectivamente en curso o no en el momento de la solicitud de acceso a la información, cabe señalar que sí, dado que hoy es el día en que todavía no se ha procedido al nombramiento y posterior toma de posesión como funcionarios/as de carrera de los aspirantes seleccionados.

Tanto en el momento en que se solicitó la información como en el que se presentó la reclamación, el proceso selectivo en el que el reclamante es persona interesada aún no

12.- Hori guztia dela eta, ondoriozta daiteke lehen xedapen gehigarri horren 1. paragrafoa aplikatu behar dela. Horrek esan nahi du Batzorde honek ezin duela baloratu eskatzaileak aurkeztutako erreklamazioa. Izan ere, akten kopiak lortzeko egindako eskaerak, dioenaren arabera, erantzunik ez izanaren aurrean, auzian den prozedura izapidetzeko araudian aurreikusitako aurkaratze mekanismoak erabili behar baititu.

13.- Ebazpen honen zentzuak ez du zalantzan jartzen informazioa eskuratzeko eskubidea, baina ezin du alde batera utzi, kontuan hartutako kasuan bezala, hori gauzatzeko modu zuzena. Horrela, 19/2013 Legearen lehenengo xedapen gehigarriak igortzen du, partikularrek administrazio publikoarekiko harremanetan interesdun diren administrazio-espedienteetan dauden dokumentuetara irispidea izateko duten eskubidea bideratzea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13. eta 53.1 artikuluen arabera.

Gardentasuna arautzearen helburua da arduradun publikoen ekintza aztertzea eta herritarrei eragiten dieten erabakiak nola hartzen diren jakitea. Horretatik eratorriz, Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzorde honen helburua jarduera publikoa kontrolatzea eta erabakiak hartzeko prozesua ezagutzea da, sektore publikoak

había finalizado.

12.- Por todo ello, cabe concluir que resulta de aplicación la referida Disposición Adicional Primera, apartado 1. Lo que significa que esta Comisión no puede entrar a valorar la reclamación presentada por el solicitante, que debe utilizar los mecanismos de impugnación previstos en la normativa en virtud de la cual se tramita el procedimiento en cuestión, dado que su solicitud para obtener copias de las actas, según manifiesta, no ha sido atendida.

13.- El sentido de la presente resolución no pone en cuestión el derecho de acceso a la información si bien no puede obviar la forma correcta de materializarlo que, como en el caso considerado, tal como dispone la Ley 19/2013, en su Disposición Adicional primera, remite al derecho de acceso de los particulares en sus relaciones con la Administración Pública a aquellos documentos obrantes en los expedientes administrativos en que tengan la condición de interesados, de conformidad con lo dispuesto por los artículos 13 y 53.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

La regulación de la transparencia tiene por objeto someter a escrutinio la acción de los responsables públicos y conocer cómo se toman las decisiones que afectan a la ciudadanía. Por derivación, el objetivo de esta Comisión de Reclamaciones en Materia de Transparencia, no es otro que controlar la actuación pública y conocer el

herritarrei kontuak ematea errazteko bitarteko gisa. Helburu hori kontraesanean jarri behar da kontrol organo hau administrazio -erabakiak edo -isiltasunak berrikusteko instantzia gisa erabiltzearekin, interesdunek beraien interes partikularrak aldarrikatzeko bideak dauden hautaketa-prozesuen esparruan. Ondorioz, erreklamazioa ez da onartu behar.

proceso de toma de decisiones como medio para facilitar la rendición de cuentas del sector público frente a la ciudadanía. Este objetivo debe contraponerse a la utilización de este órgano de control como instancia revisora de acuerdos o silencios de carácter administrativo en el marco de procesos selectivos en los que existen vías para reivindicar intereses particulares a disposiciones de los interesados. En consecuencia, la reclamación debe de ser inadmitida.

Azaldutako aurrekariak eta oinarri juridikoak kontuan hartuta, Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordeak,

En atención a los antecedentes y fundamentos jurídicos descritos, la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia,

**EBAZTEN DU**

**Lehenengo.-**. Ez onartzea [redacted]k 2021eko apirilaren 20ko idazkian Araubide Juridikoaren eta Pertsonen Kudeaketaren Zuzendaritza Nagusiaren aurka jarritako erreklamazioa.

**Bigarren.-** Ebazpen hau jakinaraztea erreklamaziogileari eta Gobernantza Departamentuko Araubide Juridikoaren eta Pertsonen Kudeaketaren Zuzendaritza Nagusiari.

**Hirugarren.-** Ebazpena argitaratzea, jakinarazi ondoren eta datu pertsonalak anonimo bihurtu eta gero.

**RESUELVE**

**Primero.-** Inadmitir la reclamación interpuesta por [redacted] en escrito de fecha 20 de abril de 2021, en contra de la Dirección General de Régimen Jurídico y Gestión de Personas.

**Segundo.-** Notificar la presente resolución al reclamante y a la Dirección General de Régimen Jurídico y Gestión de Personas del departamento de Gobernanza.

**Tercero.-** Proceder a la publicación de la resolución, una vez notificada la misma y previa anonimización de los datos personales

Gipuzkoako Foru Aldundia
Gobernantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Gobernanza

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan.

Contra la presente resolución, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

Donostia /San Sebastián, 2021/05/12

Kidea

Esther Larrañaga Galdós

Batzordeburua

Haritz Ugarte Aizpuru

Kidea

Mikel Ulazia Etxabe

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gobernantza Departamentua
Departamento de Gobernanza

UUB8005